

**IRAKASKUNTZA-GIDA** 2022/23

**Ikastegia** 135 - Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzi **Zikl.** Zehaztugabea

**Plana** GDEPOR10 - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua **Ikastaroa** 3. maila

**IRAKASGAIA**

25781 - Kirol Erakundeen Kudeaketa Tresnak **ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Kudeaketa eta Aisialdiko Minorraren zatia den irakasgai honek, kudeaketa esku-hartze eremu ezberdinetan aurrera eramaten diren eta oinarritzko kudeaketa funtzioetan erabili ohi diren tresnen erabilerarako gaitzea du helburu. Irakasgaiaren bitartez, ikasleengan kirol kudeaketarako erabilitako tresnen ezagutza praktikoa bilatzen da, bai baliabide material, giza, finantza eta denbora baliabideen kudeaketari dagokionean. Egitasmoen kudeaketarekin duen loturarengatik, bere izaera praktikoagatik eta erabiliko den metodologiarengatik, irakasgaiak era berean, ikaskuntza autonomorako eta Gradu Amaierako Lana elaboratzeko prestatzen du. Haatik, irakasgaiak bere kabuz, ikaslea esku-hartze eremu pertsonal eta/edo profesional ezberdinetan kudeaketa gaitasunetan janztea du helburu.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

**IRAKASGAIAREN GAITASUNAK:**

GE1- Eremu honetan irakaskuntza-autonomia lortzeko kirol erakundeetako baliabide material eta giza eta finantza baliabideen oinarritzko kontzeptu eta kudeaketa tresnak ezagutu eta ulertu.

GE1 IKASKUNTZA EMAITZAK: Ikaslea, kirol erakundeetako kudeaketa tresna nagusien teknikak, erabilera, oinarri teorikoak, aplikazio praktikoa eta interpretazioa eskuratuko ditu.

GE2- Kirol erakunde eta instalazioen kudeaketa tresnen erabilerari buruzko kasuak analizatu, bere egokitasuna balioesteko eta aukera eta irtenbideak proposatzeko.

GE2 IKASKUNTZA EMAITZAK: Ikaslea, kirol erakundeetako kudeaketa tresna nagusiak aplikatzeko gai izango da kirol instalazio zein erakundeen kasu jakinen analisisa burutzeko.

GE3- Baliabide material eta giza eta finantza baliabideak kudeatzeko tresnen erabilera negozio egitasmo baten diseinuan aplikatzeko.

GE3 IKASKUNTZA EMAITZAK: Ikaslea, kirol erakundeetako kudeaketa tresna nagusiak aplikatuz, negozio egitasmo erreal bat diseinatzeko gai izango da.

**ZEHARKAKO GAITASUNAK:**

G019.Buruzagitza gaitasunak, pertsonen arteko harremana eta talde lana garatzea

G020.Egoera berrietara egokitzeko, arazoak konpontzeko eta modu autonomoan ikasteko gaitasunak garatzea

**CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**

1. Kirol kudeaketa prozesuan kudeaketa tresnen erabilera eta aplikazioa.
2. Analisi estrategikorako tresnak.
3. Plangintza estrategikorako tresnak.
4. Arriskuen kudeaketarako tresnak.
5. Giza-baliabideen kudeaketarako tresnak.
6. Negozio-zorroa analizatzeko tresnak.
7. Egitasmoen kudeaketarako tresnak.
8. Finantza-plangintzarako tresnak.
9. Kudeaketa tresnak negozio plan baten elaborazioan.

**METODOLOGIA**

Irakasgaiaren metodologia aplikatua da. Erabiliko den metodologia proiektuen bitarteko ikaskuntza da (IKD-Proiektuen bitarteko ikaskuntza). Kudeaketa tresnen erabilerari buruzko proposamen praktikoa elaboratzeko asmoz, ikasleak gelako azalpenetan, literaturan eta kasuen ezagutzan oinarrituz kudeaketa prozesuaren elementuak aztertuko ditu.

**IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
<b>Ikasgelako eskola-orduak</b>	45		15						
<b>Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a</b>	67,5		22,5						

**Legenda:** M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Tailer Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 20
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 20

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazioa bi modutan egin ahal izango da:

### ETENGABEKO EBALUAZIOA SISTEMA (\*)

Etengabeko ebaluazioa hainbat zereginekin (gutxienez 2 pertsona eta gehienez 4) eta atazekin ebaluatu eta kalifikatuko da:

1. GAI BAKOITZAREN EZAGUTZA TEORIKO-PRAKTIKOA (%20): gelan emandako gaien inguruko kontrol teoriko praktikoak egingo dira. Irakasgaiaren zati hau gainditzeko kontrol guztiak gainditzea derrigorrezkoa da, bakoitzean 10 puntutik gutxienez 5eko nota lortuz. Kontrol bat gainditzeko geratzekotan ohiko deialdiko azken azterketara pasako da.

2. IRAKASGAIAREN EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAREKIN ZERIKUSIA DUTEN PRAKTIKAK (%20): Lauhilekoan zehar ikasgelan landutako eduki teoriko-praktikoak zuzenean aplikatzeko asmoz hainbat praktika egingo dira.

- Ez da bertaraterik eskatuko, baina egunero zereginak egingo dira eta ebaluatuko dira. Egunen batean ez bertaratzekotan, egun horretan buruturiko lanaren nota eskuratu gabe geldituko da. Egin beharreko lanen %80 gainditu beharko da, bakoitzean 10etik gutxieneko 5eko nota eskuratuz.

- Gelan proposatutako praktiken % 80 aurkeztu beharko dira. Praktiak epeetan aurkeztu beharko dira. Ebaluazioa eta kalifikazioa, errubrika eta talde-kalifikazioaren bidez egingo da. Ebaluazioa, egindako praktika guztien edo ausaz aukeratutako lagin baten gainean aplikatuko da.

3. NEGOZIO-PLANA (% 60): ikasleek idatzizko negozio-plan bat (% 40) garatuko dute, eta ahalezko Inbertitzaile edo erosleei (% 20) salduko diete ahozko aurkezpen baten bidez.

- G019 eta G020 zeharkako gaitasunak irakasgaiaren landuko eta ebaluatuko dira, baina ez dira kalifikatuko.

Irakasgaiaren azken nota osatzeko, beharrezkoa izango da ebaluaziorako proposatutako alderdi bakoitza, bakoitza bere aldetik gainditua izatea (5eko gutxieneko nota 10en gainean).

Ohiko deialdian alderdietako bat gainditu gabe geratzekotan, gainditutako zatiaren nota ezohiko deialdira arte BAKARRIK gordeko da.

(\*) ETENGABEKO EBALUAZIOA: Ikasleak uko egin ahal izango dio etengabeko ebaluazio sistemari, eta azken ebaluazioa egin ahal izango du lehenengo 9 asteetan, horretarako, 9. astea amaitu aurretik ikasleak irakasgaiaren ardura duen irakasleari jakinaraziko dio idatziz (e-mailez).

"Azken probaren pisua irakasgaiko kalifikazioaren %40 baino handiagoa bada, nahikoa izango da amaierako proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari" (EHUK Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiari dagokion 12.2 puntuan).

### AZKEN EBALUAZIO-SISTEMA

Ebaluazio sistema hau aukeratutako ikasleek azterketa egunean irakasgaiko edukiei buruzko proba teoriko praktiko bat burutu beharko dute (notaren %100). Irakasgaia gainditzat jotzeko, proba gainditu beharko da 10en gainean gutxieneko 5eko nota lortuz.

DEIALDIARI UKO EGITEA: Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

IKASKETA EDOTA EBALUAZIO PROZESUETAN ESKATZEN DIREN PRINTZIBIO ETIKOAK ETA ZINTZOTASUNA EZ BADIRA BETETZEN KALIFIKAZIOA ZERO (0.0 SUSPENTSO) IZANGO DA.

Ebaluazio ez preSenziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2022-23 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioe jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

### ETENGABEKO EBALUAZIO SISTEMA:

Etengabeko ebaluazioa egin duen ikasleari ohiko deialdian gainditutako zatia(k) eta bertan eskuratutako nota gordeko zaio, beti ere, ohiko deialdiko etengabeko ebaluaziorako zehaztutako portzentajeak errespetatuz.

## AZKEN EBALUAZIO SISTEMA

Ebaluazio sistema hau aukeratutako ikasleek azterketa egunean irakasgaiko edukiei buruzko proba teoriko praktiko bat burutu beharko dute (notaren %100). Irakasgaia gaindituzat jotzeko, proba gainditu beharko da 10en gainean gutxieneko 5eko nota lortuz.

DEIALDIARI UKO EGITEA: Deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute.

Azken ebaluazioaren kasuan, azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

IKASKETA EDOTA EBALUAZIO PROZESUETAN ESKATZEN DIREN PRINTZIBIO ETIKOAK ETA ZINTZOTASUNA EZ BADIRA BETETZEN KALIFIKAZIOA ZERO (0.0 SUSPENTSO) IZANGO DA.

Ebaluazio ez prezentziala egin beharko balitz, antolaketa-egokitzapenak egingo dira 2022-23 Irakaskuntzarako Egokitzapen Planaren gomendioe jarraituz eta dagokien egutegi eta egitarauan.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

E-gela bidez aditzera emango dira.

## BIBLIOGRAFÍA

### Oinarrizko bibliografia

- Campos, C. (2004). Dirección y marketing de servicios y centros deportivos. Bartzelona, Espainia: Gestión y promoción editorial.
- Chelladurai, P. (2001). Human Resources Management in Sport and Recreation. Champaign, IL: Human Kinetics.
- Chelladurai, P. (2005). Managing Organizations for Sport & Physical Activity (2nd Ed.) Scottsdale, AZ: Holcomb Hathaway.
- Cutropia, C. (2005). Plan de Marketing (paso a paso). Madril, Espainia: Esic.
- Emery, P. (2011) Sport management toolkit. London, United Kingdom: Routledge.
- Hall, E. T. (1973). La dimensión oculta. Enfoque antropológico del uso del espacio. Madril, Espainia: Instituto de Estudios de Administración Local.
- Heinemann, K. (1998). Introducción a la Economía del Deporte. Bellaterra, Espainia: Paidotribo.
- Ludevid, M., y Olle, M. (2000). Como crear su propia empresa. Bartzelona, Espainia: Marcombo.
- Mullin, B.J., Hardy, S., y Sutton, W.A. (2000). Sport Marketing. Champaign, IL: Human Kinetics.
- Parks, J. B., y Quarterman, J. (2003). Contemporary Sport Management. Champaign, IL: Human Kinetics.
- Pitts, B. (2000). Principles of Sport Management. Champaigns, IL: Human Kinetics.
- Reigs, E., Fernández, J., y Jauli, I. (2003). Los recursos humanos en las organizaciones orientadas a la eficacia y el aprendizaje. Madrid, España: Thomson.

### Gehiago sakontzeko bibliografia

- Blanchard, K., Zigarmi, P., y Zigarmi, D. (1986). El líder. Ejecutivo al minuto. Bartzelona, Espainia: Urano.
- Blanchard, K. (2003). ¡Bien hecho! Bartzelona, Espainia: Granica
- Blanchard, K., y Bowles, S. (2001). ¡Choca esos cinco! Bartzelona, Espainia: Grijalbo
- Hunter, J. (1999). La paradoja. Bartzelona, Espainia: Urano
- Hunter, J. (2000). Fish!. Bartzelona, Espainia: Empresa activa
- Jonson, S. (2002). ¿Quién se ha llevado mi queso? Bartzelona, Espainia: Empresa activa
- Trias de Bes, F., y Rovira, A. (2004). La buena suerte. Bartzelona, Espainia: Urano.

### Aldizkariak

- Apunts
- Revista de Educación Física
- Perpectivas de la educación física.

### Interneteko helbide interesgarriak

- Lecturas de Educación Física y deportes. Revista digital. [www.efdeportes.com](http://www.efdeportes.com)

## OHARRAK